



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2018ko irailaren 27an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta bederatzi korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- Udal batzarrak 2018ko uztailaren 26an buruturiko saioari dagokion Akta aho batez onartu da.

2.- 2018ko ordainsarien eguneraketa-Eudel.

Bertaratutako hamar zinegotzien aho bateko erabakiz ondorengo erabakia hartu da:

- 2018-01-01etik aurrera langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
- %0,25eko soldata igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan.

3.- Agitax- 2019ko hiri barruko tarifak.

Udal Batzarrera bertaratutako 10 korporakideen aldeko botoekin, honako erabakia hartu da:

Auto-taxien zerbitzu publikoan 2019. urtean aplikatuko diren tarifak, 2018ko tarifei %2,2igotzeko AGITAX-ek eginiko proposamena onartzea.

Erabaki hau AGITAX - Gipuzkoako Taxisten Elkarteari igortzea.

4.- Erregu eta galderak. Ez dago.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

IDAZKARIAK,

O.e.
ALKATEAK,